

# HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86

1986. 10. 10. / 10. 10. 1986

19. Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

50 pta.

1988. **Martxo**a



**PEDRO SAGARZAZU IRIARTE** 63 urteko gizon sasoiakoa Tximistenea baserriko semea du. Frontoi inguruan harrapatuko duzu, buzo urdin eta txapelaz jantzirik, base-riaz, txoriez edo belarrez zernahi galdegin ezkeratsegin ez eta jakinduriaraz erantzuteko beti prest. Barruko orrialdeetan dago zure zai.

Juliantxoren historia Hendaiako exiliarion 36. urtean gogoratzen digu Lourdes Zubeldiak oroinen biziz.

Nerea Bellok eta Ane Mufiozek kanpoan dabilten unibertsitarien arazozen berri ematen digute.

Amara Guadalupeko ikastetxeak ere berri idazlan, marrazki eta ihauterietako argazkiak bidali dizkigu zenbaki honetarako.

Martin Ugaldek eta Juan San Martinek historiaren izen zaharrez hitz egiten digute.

Errotako *Ginixian* kontaketa amaiak ere irakurtzeko aukera izango duzu Jesus-mari Mendizabalen lumaik.

Azterketa soziolinguistikoa, nekazaritza, arrantza, demografia, e.a.

## PLENO KATAZKATSUA KAI BERRIA DELA ETA

Otsailaren 4ean Pleno bat izan zen Udal Alondogian Kai Berriaren arazoaz. Plenoa HBeko zinegotziek eskatu zuten abenduaren hasieran eta gai bakarra zuen.

HBren moziok lau puntu proposatzen zituen Plenoak onartzeko:

1. — Udalak Iparraldeko diketik hegorantz 100 metroko trabeskako dikesa egin behar dela erabakitzea

2. — Horretarako behar den dirua Eusko Jaurilartzari onartu dezala eskatzea.


3. — Kofradiak eta talde politikoei osaturiko Batzorde bat sortzea Eusko Jaurilartzarekin hitz egiteko.

4. — Badia eta kirolgunea antolatzeko azterlana enkargatzea.

HBren izenean Esteban Olaizolak egiten du mozioren aurkezpena. Olaizola koalizioaren zerrendan lehena izatez gain Arrantzale kofradiako Aba Nagusia du. Kofradiako beste buruak ere bertan dira ehun bat arrantzalerekin batean, bizpahiru kazetari, talde politikoen kideak, eta abar, zinegotzien inguruan, gehienak zutik, hiru ordu inguru iraungo duen pleno gatazkatsuan.

Olaizolak dioenez azterketa asko egin dira eta denak dikesa egitearen aldekoak izan dira. Informazio publikoaren aldia ere inor ez zen aurka atera. Basozabal jaunak dirua bazegoala esan zuen baina diru hura ez zen momentu egokian aprobetxatu. Udalak, hiru milioi t'erdi ordainduta, bigarren azterlana eskatu zion Losadari eta honek garbi utzi zuen hondartzako kutsadurak ez duela zerikusirik iparrekoei dikesa luzatzearekin. Beste tik, morru hori falta delako, arrisku larriak pasatzen dituzte arrantzaleak, eta denboralea dagoenean barkuan zaintzen egon behar izaten dute kateak puskatuko diren beldurrez. Azkenean, HB ez dagoela estudioen kontra, dio Olaizola jaunak, baina ipar-hegoko dikesa berehala egin behar dela.

Ondoren Alfontso Oronoz Alkate jaunak Udalaren jokabidea defenditzen du. Udalaren aldetik ez dela inolako utzikeriarik izan esaten du, alderantziz baizik. Losadaren lehen azterketa ez zela behar bezain sakona izan, Losadak berak aitortu zuen bezala, eta horregatik eskatu zitzaioala bigarrena. Bigarren azterlan hori onartat eman du Udalak eta Eusko Jaurilartzari bidali dio onartu eta ahalik aurreratu aurrera eraman dezan. Eusko Jaurilartzak estudio hori ikusita CEDEX-i ICen-



(Luisa Argazkiki)

tro de Experimentación de Obras Públicas delakoari) entsenadaren probetxamendurako ikerketa sakonago bat enkargatzea erabaki du. CEDEX-en R. Irribarren laborategia dago, portu arazoetan dagoen onena. CEDEX-ek entsenada aztertzeo lan proposamen bat egin dio Jaurilartzari eta Jaurilartzak hilabete barruan erantzun beharko dio proposamen horrekin konforme dagoen ala ez. Gero, CEDEX-en estudioaren erantzuna aldeko izan ezkerre, aurten bertan hasi daitezke dikeak egiten.

Ondoren Alkateak Gasteizko eta Madrillgo joan-etorri eta harreren berri emateko akta eta agiri batzuk irakurtzeko eskatzen dio Idazkariari eta orduan gertatzen dira lehenengo oihu eta protesta hitzak jende artean dagoen zenbaiten aldetik. Beste batzuk halakoak lasaitzen saiatzen dira, istiluk sortzea kaltegarria izango dela esanez.


Enparan jaunak esaten du ez direla nahasi behar portua eta uren kutsadura, Losadak ez zutela zerikusirik esan zuela eta Osakidetzak dioenez kutsadura Jaizubiako erreka eragina dela eta horrekin batean hainbeste zikinkeria botatzen duten, industriek, mataderoak eta abar. Barku handiak, bestalde, 26 direla eta kirolekoak, berriz, 600, eta erdiak motordunak.

Batzuen eta besteen arrazoiak luzaro erabili ondoren beste talde politikoen proposamena irakur dezala eskatzen zaito Idazkariari.

EA, EAJ/PNV, EE, eta PSE-PSOEren mozioak hurrengo puntu hauek proposatzen dizkio Plenoari:

1. — Ontzat ematea Eusko Jaurilartzaren asmoa eta programa.

Jaurilartzaren asmo horren arabera: a) obrak hasi baino lehen kalte larriek ez dela sortuko garrantzitu behar da. b) Portu berehazko den ezkerre, Jaurilartzak alternatiba diferentek aztertzeo eta onena aukeratu dezala eskatu dio CEDEX-i. CEDEX-ek, batez ere eta ahalik azkarren (bi hilabete barruan edo) berri itzia eman beharko du (par-hegoko dikeaz. c) CEDEX-ek bidalitako badiaren estudio-proposamena Jaurilartzak ontzat eman ezkerre hitzarmen bat firmatuko du berarekin, hilabete barruan beranduez. d) Jaurilartzak 1988ko aurrekontuan dikeak egiteko partida bat sartuko du eta Informa aldekoa baldin bada, aurtengo udazkenean bertan hasi daitezke obrak.



Azken projektua, Udalak onartua eta Jaurilartzak onartu dezan bidali dena. (1987. maiatzekoak)

2. — Udalak, oraingoz, badia aztertzeo CEDEX-en asmoa ontzat ematea.

3. — Berriro ere Losada jauna lan hauerarako Udalaren laguntzaile izendatzea.

4. — Jaurilartzari ikerketa hauek ahalik azkarren eragin ditzala eskatzea.

5. — Jarrailaren Batzorde bat sortzea honela osatua: Buru Alkatea delarik, partidu politikoko bakoitzak zinegotzi bana izango du, Kofradiak bi eta Club Nautikok bat.

Proposamena irakurri bitartean eta ondoren ezinegona nabariagoa eta haserre hitzak gero eta goporragoak dria entzultzen aldetik. Hitzak alde batera utzirik botazioa lehenbaiten egiteko eskatzen dute. Plenoa giroa txartxo du. Bigarren mozioa aurkeztu duten udaldekien kontrako irainak eta mehatxuak ere ez dira falta.

Udaldekideek iritzi batzuk aipatu ondoren Alkateak botazioa egingo dela esaten du: lehendabizi HBren mozioarena eta ondoren beste partiduen proposamenarena.

Olaizola jaunak ongi pentsatzeko zer eragin behar duten esaten die zinegotzietz, hurrengo hauteskundeetan inor ez bait dute engainatuko.

Momentu horretan Barkaitzietz jaunak nola joan den Plenoa ikusite ezin dela isilik geratu esaten du. Dagoen mehatxu eta Intimidazio giroak demokraziaren oinarria den hitz askatasuna galerazi eta ito egiten duela. HBren mozioa probokazio hutsa iruditzen zaiola Udala arazoa luzatzen ari dela esaten duela, baina Korporazio berri hiru sartu zen momentu beretik, eginhalean ari dela Eusko Jaurilartzatik lortu behar dena iritsi nahian. Portuaren iniazitaba Jaurilartzari dagoiela, berak eragin behar bait du portua, ez Udalak. Urriaren 7an hasita hiru aldez izan diren Gasteizen eta han hitz egindakoak garbi-garbi agertu direla Hirigintzako Batzordean xehetasun guztiekin. Esana zegoela ere urtarilaren azken aldean CEDEX-en proposamena iritsiko zela eta horrexegatik utzi zela Plenoa otsailaren 4erako. Gezurra dela zinegotzi batzuk portuaren alde eta beste batzuk aurka daudela esatea, denak alde bait dute. HBk informe guztiak aldekoak direla esaten duela baina hori ez dela egia. Losadak 1985eko abuztuan ez dagoela arrazoi objektiborik projektua atzera botatzeko esaten badu ere, gero, bigarrenean, egoera oso larria dela esan bait zuen. Eta Losada jauna erabat neutrala zen. Funtsezko arazoa ez de-

la kutsadura — esaten du Barkaitzietz —, nola berritu entsenadako urak baizik. Eta egoera hori nahiko okertu zela lehen egindako obrek ere. Eusko Jaurilartzako Basozabal jaunak portuaren eraginean arazoa, inpaktuarena, ez zela bere arduraz esan zuen; Udalarena, ordea, bazen. Horregatik enkargatu behar izan zuen hiru milioi 7' erdioko ikerketa.

Barkaitzietz hirtzaldi luzea zenbait aldez etenda gelditzen da entzultzen protesta oihuak direla eta.


Azkenean alde batetik eta bestetik iritziak eman eta puntualizazio batzuk egin ondoren Enparan jaunak garbi utzi nahi du zer nahien gertatzen bada ez dela ez Olaizola jaunaren eta HBren erantz izango, "haizeak errenten dituenak erruzkatu bilten bai ditu".

Hamarraz jo berriak direnean HBren mozioaren botazioa egiten da. Alde, HBkoak agertzen dira, eta beste guztiak, EA, EAJ/PNV, EE eta PSE-PSOE, aurka, mozioa baztertua gelditzen delarik. Momentu horretan sekulako iskanbil sortzen da eta HBko zinegotzietz ikxtata alde egiten dute. Ez da eraza esaten han ikusten eta batez ere entzuten dela. Haserre bizitan batzuk ezker alde dauden zinegotzietz jarlekua astintzen hasten dira kraskatzeko soinua ateratzeari. Andre zinegotzi batek, gogoregi ez bada ere, kolpe bat hartzen du betondotan. Irain eta mehatxu hitzak gelditu diren zinegotzi guztietz dira: *Lotsagabeak! Alperrik! Desgraziatu zi kiñak! ¡Estais antausi! ¡Que se vayan como los verdes! Urde zikiñak! Kabroiak!* e.a. Laurodi gozoenak, hala ere, Hirigintzako lehendakariak jasotzen ditu segur aski: *¡Te vamos a colgar! ¡Te vamos a echar de aquí! ¡No vas a andar tranquilo por el pueblo! Ex hbitz herrikoak!* e.a.

Alde egiten dutenean eta giroa nolobait baretzen denean bigarren proposamenaren botazioa dator, hamarrak eta laurdenetan. Proposamena aho batez onartzen da.

Hurrengo goizean arrantzaleek asanblada bat egiten dute eta bertan agiri batean Udalar beren haserrean adieraztea erabakitzen dute, arratsaldean manifestazte bat egitea eta HBren proposamenaren kontra agertu ziren Alkatea eta zinegotzietz dimisioa eskatzea, eta era berean Kofradiaren izenarekin "personas non gratas" deklaraztea, herriaren egiazko interesak defenditzen ez dituztelako.

J. A. Letamendia



## JULIANTXO

Garai hartan Hondarribian guziak eza gunak ginen. Burloso xamarrak ere bai; heritar gehienak izengoitiz bataiatuak ginen. Gaurko lege, paper eta formulazioetatik urrun, Hendaiaara joateko eski zen ibasia itsas beheara egotea; hankutsik igarotzen genuen.

Bizimodu gogor xamar hartan, mutil koskorrak, komunioa egin bezain laster, itsasoan hasten ziren lanean. Baina ordurako aspertuak ziren beren potto eta kutzarekin inongo txirra, pottorro eta karramerruak harrapatzen. Haietako bat Juliانتxo genuen. Zazpi senidetan zaharrena, maiz ikusten genuen haur txiki batekin lepotik zintzilik. Eskolara, batzuetan ahal zuenean eta bestee-tan nahi zuenean. Abil paregabea sagar, piko eta aranak beren sasoiari harrapatzen. Hizketan eskalaproi xamarra, alaija eta xelebrea, baina bizia bezain nerbio-sua. Juliانتxoaren zaletasunik haundiena itsasoa zen, noski. Beti ibiltzen zen arraiak bezala igeri-ka banbotte batetik bestera, edertasunaren jostailu.

Igande goiza zen eta beti bezala Hondarribia txistularien zortziko soinuz esnatu zen, txurrera baten abots ezin ixildua eta tranbia zahar baten negar marraskarekin. Eguna aurrera zihohan eta halako zurrur-murru bat zabaldu zen herri guzian; gerra ikargarri harren hasiera!

Ez ziren hamabost egun igaro eta gure Bidasoa doluminez jantzi zen. Bat batean hondarribiar gehientxoanek ikarak eta beldurrak harturik, ibai pasatzen hasi ginen, itsas motor, batel eta banbotteak gainezka bate-rik istilu eta zalapartaren erdian. Ez zait sekulan ahaztuko. Ibaieran erdian gindoazela, gizon baten abotsa: "Timol kontur! Banbotte horrek tira-bira egingo dik eta!". Daldarikonat jaitsi ginen beste aldeko hondarribiar. Hantxe, amona xahar-xahar bat, buruan bere mottuak, artoburuak biltzeko otarre baten gainean ixerita negarrez. Hara-xeago, umetxo bat kaiola eskuetan bere txoriarekin; ama oiuhka. Aurrerago gurasoen aurpegi larriak beren umeak ezin elkartuz. Irunera begiratu eta dena ke. Hitz batean: gizonaren eromena bizi-bizirik ikusi zen han.

Hondarribiar multzo bat San Juan de Luzera joan ginen, eta haien artean Juliانتxo, egun gutxi barru berriz gure herrira itzulkiko ginen ueste osoarekin. Baina, bai zera! Eguna joan, asteak eta gero eta okerrago. Ez lanik eta ez dirurik. Egoera hark bere herrira etortzera behartu zituen asko. Baina hori egiteko Viceconsuladorea joan behar zen eta bertan paperak egin. Eta hau Juliانتxo ezin zuten uertu: "Montel ixillik! ol Hondarribira fatuko paperak, hireik! aniko nak" esaten zuten. Baina berak besteak bezala burua ma-



Hondarribiko exilatuak Hendaia-ko itsas beheara (1936).

kurtu eta joan behar izandua viceconsulagana lau edo bost lagunekin. Hauek aurrera Juliانتxo utzi zuten harekin:

—¿Qué desea usted?

—Papeli pa ir Fuenterrabia.

—A ver, tu nombre y los cuatro apellidos.

Eta Juliانتxok bere lagunak beregira: —Au izorratzia! Mixiku jakin diet, miñon bestiak... Zuek estakizia?

Lagunek:

—Guk nola jakin biar diu hik ezpadakik.

Viceconsulak:

—Hagan ustedes el favor de hablar en castellano. A ver, dime los dos apellidos de tu padre y los de tu madre, en qué fecha naciste, donde, tu domicilio, por qué viniste y por qué te vas...

Zein nerbioztu eta zoratu zen gure Ju-

liانتxo! Bere onetik aterea, eskuetan zuen kapelarekin kolpe handi bat mostradorean joaz, trikitrako lehortuaren antzera hasi zen:

—¿Qué coño tanta pregunta y tanto historio pa ir Fuenterrabia! Fango nak bai ni, hi gabe, zakila jotzen ari bayaz hemen!...

Eta tximistaren antzera, bera eta bera lagunak korrika atera ziren ezer egin gabe.

Sinista izazadau, irakurle, hitz hauek ber-berak esan zirela San Juan de Luzko viceconsuladorean. Eta eskerrak interpretarik ez zegoela. Makina batek ikusi zituen asto beltzarekin gutxiagorekin.

Noski gure Juliانتxo Hondarribira etorri zela. Nola? Guk ez genuen ikasi.

Baina gizajoak ezin ahal izanduz zuen gehiago lehengo bizi libre eta alai hura eraman, hegalka moztu bai ziozkaten. Gerrara joatera behartu zuten eta hantxe hil...

Lourdes Zubeldia

## OHARRAK

### TXANDAKO BOTIKAK

Martxoak 7 - 13: Maij  
14 - 20: Iraola  
21 - 27: Erauskin  
28 - 3: Maij

Maij, Alm. Alonso Kalean - 642191  
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027  
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

### EUSKARAZKO MEZAK

#### LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6etan Portuan (Ihaurrentzat).  
7,30etan Portuan.

#### IGANDEETAN:

Goizeko 8,30etan Betherranean.  
9etan Amuten  
9,30etan Guadalupen  
11etan Portuan

#### Penitenti Elizkizunak:

Martxoaren 29an, arratsaldeko 4etan eta  
8etan Portuko Elizan Euskaraz.

Martxoaren 30ean, arratsaldeko 4etan  
Portuko Elizan Erdaraz.

Martxoaren 30ean, arratsaldeko 8etan  
Parrokian Erdaraz.

### TXANDAKO OKINDEGIAK

Martxoak 6: Arratibel  
13: Garmendia.  
19: Martinez.  
20: Arratibel.  
27: Garmendia.

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975  
Garmendia, Santiago Kalean - 641136  
Martinez, Kale Nagusiak - 641212

## HERRIKO IKASLEAK KANPOAN

Hondarribia txikia denez, gazteek kalean egiten dute bizitza, lagunekin igarotzen dute eguneko denbora gehiena, eta guzti honekin hausteak aldaketa handiegia suposatzen du; beraz, ikasi nahi dutenari buruz oso ideia argiak ez badituzte behintzat, urrutien Donostiara joaten dira, bere adarreko (zientziak-letrak) ahalik eta karrera errezena aukeratuz.

Hala ere azken urteotan aldaketa bat narritu da, hau da, gero eta jende gehiago aterratzen da kanpora ikastera: Bilbo, Gasteiz, Iruña... eta baita ere Espainiako estatuko unibertsitatetara (Salamanca, Madrid...).

Kanpora ateratzeak aldaketa izugarria suposatzen du, bai estudio aldetik eta bai eta bizimodu aldetik ere. Hondarribitik beste leku batetara estudiantzera joateak ez du ikaslea bakarrik karrera bat aukeratzera bultzatzen, beste mila gauza izan behar dira kontutan: non bizi? non jan? garraioa e.a....

Honen aurrean zenbait aukera aurkezten dira, horrela "non bizi?" galderari zenbait erantzun posible emango zaizkio: Gehienez zenbait lagunekin elkartuz, pisu bat alo-

kasle hondarribitarren egoeraz pentsatzean, benetako ardurua 18 urtetan hasten delako konturatzen gara.

Gaur egun, Hondarribiko gazteek 18-19 urterarte ikasketak herrian bertan burutu ditzakete, espezio batzu kontutan harturik, hau da, adar profesional edo REM delakoa aukeratzetan dutenak. Hauxe hala ere generalean Iruña joaten dira.

Gure kasua BBB ikasketak aukeratzea izan denez, adar honetatik egingo dugu azterketa.

Hondarribiko gazteek haur direnetik 18 urterarte, ez dute ikasketen gainean ardurarik hartzen, ez bait dute aukera beharrik, lehen aipatu dugun bezala bertan ikasteko ahalmena bait dute; ez dugu ahozta behar instituturara joan den jendeaz ari garela.

UBira iristean sortzen zaio arazoa ikasleari. Nor joan? Zer estudiatu? Momentu hau izaten da etorkizunari begira ikasleak garrantzitsuen kontsideratzen duena, nahiz eta gehiengoak herrian jarraitu, etxea, lagunak, e.a.... garrantzitsuagoa ikusi.

katzen dute; beste zenbaitek gela soil bat hartzen dute, eta azkenik bada jendea residentzietan sartzen dena.

Noski guzti honek oso aldaketa handia suposatzen du, batez ere familian bizitzetik zure egoera berean aurkitzen diren pertsonekin bizitzera pasatzean; amatxoren jantzia, etxea txukun-txukun eta garbia... Baina positiboa da zeren pisu batetaz arduratzea eta horrek suposatzen duen guztia ikasteko aukera ezin hobea da.

Guzti honekin zera esan nahi genuke, hau da, gure moraleja botako dugu, nahiz eta oso jakintsuak ez izan: ikasketa zehatz eta konkretu bat gustatzen bazaizu, ez zalarizirik izan, lasai, asteburuak zureak dituzu eta.

Nerea Bello eta Ane Muñoz

**SOLASAK**  
eta  
**JOLASAK**



Hamar aldaera dituzu bi marrakiotan. Bila itzazu.



## ESKOLAZ ESKOLA

Zenbaki honetan Ama Guadalupeko ikastetxeak bidali dizkigu bere lanak.

### IHAUTERIAK PRESTATZEN

Bilera bat egin genuen eta gurasoen gela osoa brasildarraz maskaratzeara erabaki zuten. Orduan, lanean hasi ginen. Plantilak moztu genituen eta mutilek loreak kalkatu eta ebaki zituzten. Flekoak egin, sokoan itsatsi eta ondoren bakoitzak bere alkandora eskolara ekarri zuten eta amek paperezko loreak alkandoretan josi zituzten.

Neskak, plantilen bidez loreak kalkatu, moztu eta besoetarako bolanteak egin genituen. Bakoitzak bere alkandora eta gona ekarri zuten josteko.

Gimnasia lekuan ansaiatzan dugu eta letroran jertzen gara. Lehenengo dantza irakatsi ziguten eta "Chiriquitú" deitzen da. Hiru dantza ikasi ditugu, oso politak dira eta oso pozik ibiltzen gara.

Ihauteri egunan zai gaude eta eguraldi ona egitea espero dugu, kalez kale gure dantzak erakusten ibiltzeko.

Samba dantzatzan aterako gara. Horretaz aparte, guk atsedan pixkat hartzeko baditugu beste abesti batzuk.

Hasiera Zikloa

### LURRUNA

Hirugarren mailakoek, gai hau erabaki dute aldizkarian argitaratzeko.

—Eguzkiak itsasoko urak berotzen ditu. Ibaiekotako ere bai. Orduan ura lurrunten da. Lurruna gora doa. Lurruna hodei bihurtzen da. Hotza egiten duenean elurra erortzen da eta beroa egiten duenean kaxkabarra edo euria erortzen da.

Landareek eta animalak urik gabe ezin dute bizi, ezta gizonek ere.

Itsasoko ura gazia da eta ibaiekotako ura lakuetako ura urgeza da.

Itsasoko ura arrainak bizitzeko da, gizonak bainatzen dira ere bai. Barakoak uretik pasatzen dira.

Gaur egun errekek, ibaiak, itsasoak, kutsatuta daude. Gizonek zakarrak botatzen dituzte eta barakoak gasoleoa botatzen dute-lako eta ura zikintzen dute. Hirugarren maila



### OLERKIA

Itsasontzi urdin batean  
arrantzean ari dira  
arrantzale gazteak  
goiz goizetik jaiki  
eta ilundu arte.

Hau bizimodu nekargarria,  
egun osoan lan eta lan  
nolabait bizi beharko  
HONDARRIBIKO jende gaztea

Zeren ez dago inonen lana  
eta bizitzeko lan egin beharra  
jan, edan, eta jatzeko.  
dirua irabazteko lan egin beharra

Baina itsasontzi urdin hartan  
gazteak pozik daude  
lan egin behar denez  
pozik izango dira.

Lupe Amorrotu 6. maila

### ZUHAITZAK

Basoan zuhaitz asko daude  
bere enborrak marroiak dira  
bere hostoak berdeak dira  
han goian txori politak daude.

Haizea egiten duenean  
han goian zeru urdinean  
hostoak joaten dira  
Jauna ikustera

Zuhaitz gaisoak  
batzuetan zuhaitzak benetan gaisoak dira  
zeren jendea oso gaiztoa da  
moztzen ditu beren enborrak  
egiteko danborrak!

5. maila

### MUSIKA GURE ESKOLAURREAN

—Orain dela bi urte eskolan erabaki genuen musika hezkuntza haurrei eskaintzea.

—Honetarako maisu berezi batekin kon-tatzen dugu, gure lagun Luis Mari.

—Arlo honen garrantzia ikusirik, eta eskolaurreko adinak pertzepiboki duen une garrantzitsu hori aprobetxatuz, helburu hauetan oinarritu ginen:

ENTZUMEN EKINTZAK ERAGINA PERZEPZIOA  
ENTZUMEN EKINTZAK BEREIZKERIA BERREGINTZA  
KANTUA; LENGUALA, ERITMOA ETA MUSIKA  
TRESNEKIN IKUNTZAK  
PSIKOMOTRIZTATEA  
GORPUTZ ESPRESIOA

—Ekintza honen bitartez helburu orokor hauetara iritsi nahi dugu:

GARAPEN SENTSOPERZUPTUALA  
MUSIKA DAGOKION GARAPEN PSIKOMOTORRA  
LENGOAJA OZENAREN BITARTEZKO SORMENA

—Bukatzeoko esan behar dugu, hezkuntza arlo honek umea modu zabalagoan ezagutzeko aukera ematen digula

—Eskolaurrekoak

### DROGARI BURUZ


Eskola munduan sortzen diren arazo horietako bat, droga da. Droga mundu horretan murgiltzen gara eta zoritxarrez haurrak droga hori erabiltzen ohituta daude, askotan neurririk gabe:

TABAKOA  
BARBITURIKOAK  
ALKOHOLA  
OPIAZEOAK

Zikloa programa aproposak antolatu ditugu. Programa hauetan bitartez drogarri buruzko informazioa eman nahi dugu eta bazterre erborberaren autonomia potentziatu. Garenarekin eta dugunarekin zoriotsu izan.

Gure ingurunea zorionez eta bizitzeko ginez bete eta gizarte alai eta lagunkide bat eraiki.

Pedro



# Blagan

Kirolegiria edo frontoira hurbiltzen bazer, han arkituko duzu kapelo beltz eta buzo urdinetan gizon bat. Pedro duzu, "Tximista". Pedro Sagarzu Iriarte, "Tximistenea" baserriko semea.

Etxean triste dagoen txoririk baldin baduzu, posible diozu Pedrori galdetu zergatik ez duen kantatzen. Haginetako mina baldin baduzu galdeizko balaren bat oinazea goxatzeko... Ikusiko duzu nola asmatuko duen Pedro Tximistak.

—HONDARRIBIA: Baserritarra zera, Pedro, beti NATURALEZA eta baserria gustokoak izan ttuzu...

—PEDRO: *Belarrimotzak esaten dute: "la cabra al monte", ni ere bai, ni beti gotti.*

*Neri txoriak, oiloak, arbolak, loreak, gustatzen nauzki, baita behiak ere, biñon ez dut lurrikari edukitzeko. Horregatik ttugu etxean konejo batzuek, txoriak, ahal dutena eduki.*

—H: Tximistenean bizi zera, biñon ez duzu aziendarik, eta etxeko lanaz gain frontoian ta aritzen zera... Joango zineteko baserrira baserriko lanetan bakarrik aritza?

—P: Ni pozik joango nitzake baserrira, oraingo makinariakin! Ya lo creo, orain lan erdiakin doble atera. Orain tipi-tapa ebaki, lehortu, jira makinakin, paketeak egin, etxean sartu, txoko batean antolatatu, ta listoi Orain diferentzia haundia da. Egi-egia, ni itsututa joango nitzake baserrira.

H: Han ere orduak sartzera...

—P: Ah!, baserriak hori du! Eguna argitzen denean kanpora, ta iluntzen denean etxera. Baserria hori da, itxasoa bezela, igual-igual, denbora txarretan etxean, onakin aprobetxa. Igandea da, ez da posible jairik egittea.



## PEDRO SAGARZAZU

*Badakizu ze hasi behar duzun: goizean hasi, orain ilarrak, patatak, instantean bainak ere bai... Gero artoak eta... Hurrengo urtean segi, vuelta al ruedo berriz ere.*

### TXORIAK

—H: Beste aldetik beti aditu ketu dugu afizioa duzula txoriekin ibiltzeko ta.

—P: Nik beti, ttiki-ttikitatikan. Nik txoriak kabitik hartu, domatu, eskutan eduki. Hasi nintzen kanarioekin hamabost-hamasei urtetan, ta kanarioak bezela usoaq igual.

—H: Ta orain zer ttuzu?

—P: Kanarioak, hegaztiak, oiloak, txituak, konejoak... Kanarioetan ttut timbrado, español deitzen duten hori... Asko ibili naiz txoritan.

—H: Ta hemen txoriak gero ta gutxiago...

—P: Hemen txoriak ari dire ahitutzen, inork ez du errespetatzen, veda ezta inork ere errespetatzen. Elurra edo horma, edo jela baldin bada dena garbi-garbi egin ta ezta posible.

Orain, txoriak ere battu bere lanak. Gaietuzen bada txoria ere gaiztoa da. Txoriak oso politak dire, biño kontu! Zuk garia botatzen baduzu, ta hogeituroi edo pareta-txori, erretra-txori deitzen duten hokiekin ez duzu inportikan, biñon miloa etortzen bazatutu zure kosetxa jan egingo dute, es un parásito como otro cualquiera. Xoxoak ere oso politak, bai, biñon, neurrian.

Hemen gauza egin behar da neurrian jar-tu, equilibrar, hori da gauz zaila.

### BELARRAK

—H: Eta belarrak gain ere ba omen dakizu. Hori nola ikasten da?

—P: Batek esan, besteari aritxu, zeuniki prusba egin. Belarrakin neuniki prueba egin dut inori eman biño lehenogo.

Berbená-belarra ta hoiak haunditsua edo infekzioa baduzu oso onak ttuzdu. Ta diarreantzako belarrak sarikari-belarra izena du. Horrek personak, zakurrak, behiak, konejuak sendatzen ttu, denak sendatzen ttu.


Belar glaze asko dire, biño ez digute erakutsi nahi.

Battuzuz almorrantantz. Beste bat bada pikara-belarra deitzen duguna, infekzio guziak kentzen ttuena.

Ta pareta-belarra hepatisientantz espeziala duzu.

—H: Ta pasmo-belarra?

—P: Pasma-belarra infekzioa baldin baduzu, ura egosi ta harekin egitteko. Biñon infekzioa baldin baduzu, orain beste gauzak



badire, merkromina hori espeziala da, hori ematen baduzu horrek ez duzu infekzionkan.

Batxuria, tipula bera ere medizina duzu, erromeroa ere bai, xapota, tomillo, hori katarria denean esneakin hartu.

H: Tensioa behertitzeko ere ba omen da...

P: Tensioa behertitzeko oso ona da belar-mina, biño kontuz asko edaten baduzu, laister geldituko zera hankaz gotti. Karaskila ere ona da tensioantz.

Katarroantz ere bai ardi-mingaina egosita.

Fumatzaileantz ere bada, izena ezta-ki belar horrena, bronkiok garbitzeko.

—H: Biñon belarrak non diren eta jakin behar da, ez dire toki guzitan.

—P: Nik arittua dutenez, aspaldi urtean Hondarbia biñon aberatsagorik ez dela Europa guzian, lur bat, probintzi bat hau bezin aberatsikan medizinao belarratoko. Espeziala dugu hau. Biño ez gattute erakutsi nahi, sekretua eudentzako.

Biño batek beti isuri, "zuk esaten bana-zu glaze bat nik bestea", ta hola ikasi egittan da.

Berak esandakoek ikasteko balio digu telakoan gaude. Hurrengoan gu kontatu beharko...

I. ETXEBESTE  
Tx. SAGARZAZU

## EUSKALTZALEEN BILTZARRA HONDARRIBIAN

"Eskual-Zaleen-Biltzarra" Hondarrribian 1901an jaino zela diote batzuk, 1. eta besteak 2. berriz, Hendaian; eta bigarrena, 1902koa, izan zela Hondarrribian eratu.

Nolanahi, seigarren batzarra, 3. ere hemen, Hondarrribian, antolatu zen 1906an euskararen defentsa eta zabalkunde Euskarri osoan batera jartzeko erabakorra gertatu zena.

Hamasei urte gero onarturko baitzuen Euskaltzaindiak orduko proposamena. Baina esaten hasi garen bezala, Eskual-Zaleen-Biltzarreko lagunek Hondarrribiko Udaletxean bildu ziren 1906go irailaren 13an, Maximo Laborda jaunak hiriko alkatearen baimenarekin, eta hemen, Arturo Campion jaunaren lehendakari zapean, adierazten da "Espainia aldeko eskualdun Diputazioen Akademia bat eratzeko asmatun direla", eta ea. 1) "Eskual-Zaleen-Biltzarra" desegino eto duten Akademia berrin indartzeko (Campion); 2) ez duela hala izan behar, hark Akademia baten lana egingo duela, eta Biltzar honek beste lan praktikoa bat: "euskararen iraute eta zabaltzea" (Charles Petit); 3) bi erakundeak behar direla eta "begi onez elkar ikusi behar dutela biak lan egin" (Juanxueto jaunak, sendagileak); 4) "Akademia eta Biltzarra, bakoitza bere bidetik jarrai dezaketela, eta ona izango litzaketela Akademiak "frantses eskualtzale zenbait aukeratuak ba-

litu eskualde honetako hiru probintzietatik, eta hauek Biltzar honekin loturak sortu, honi indar eta bizitasun gehiago emateko" (Elissague apez jaunak); 5) Julio de Urquijo ere sentipen bere adierazten du beste bi lagunekin batera.

Campion jaunak pozik entzuten dituen esandakoak.

Eta batzarra erabaki onenekin amaitzeko, hauteskunde bidez aukeratzeko 1906-1907rako kargudunak: James de Jaurgain, lehendakaria; J. P. Elissague eta Isaak Lopez-Mendizabal lehendakariorde; Piarren Garacotche, Julio de Urquijo, Serapio Mujika, Frédéric de Saint-Jayme, Théophile Barran eta Carmelo Echegaray, batzarkide; lehen idazkari; Martin Landereche; idazkari, Clément d'Andurain, eta diruzain; George Lacombe.

Erabakitzen da, azkenik, hurrengo urteko bilkura Hendaian egingo dela. Gero, denak bilduko direla "Miramar" deritzan Ostaturan bazkari eder baten aurrean, eta Landereche idazkari jaunak izenpetzen du akta Hondarrribian, 1906go irailaren 20an.

Euskaltzaindia, denok dakigun bezala, Oñatiko Kongresutik sortu zen 1918an, eta bere haraitegiak hamabiko kopurua ezartzen zuen akademikide izateko; Hauetako lau Oñatiko batzar berean izendatuak izan ziren:

Resurrección María de Azkue, erakundearen lehenengo lehendakaria; Arturo Campión, Luis Eleizalde eta Julio de Urkixo. Gainerako zortziak hautatzeko batzarre berezia ospatu zen Gipuzkoako Aldundiko Jauregian 1919go irailaren 21an: Domingo Agirre, J. Blaise Adema apaiza (Grotano Adema "Zaldubuy" poetaren iloba), Jose Agerre, Pierre Broussain, Joan Bautista Eguzkitza, Erramun Intzargarai, Pierre Lhande eta Arraimun Olabide.

Baina honetarako garrantzitsua izan zen Eskual-Zaleen-Biltzarrik Hondarrribian 1906go irailak 20 zituela hartu zuen adostasunezko erabakia.

Martin Ugalde

1: Auñ., eskua, 270

2: **Biografia de tres figuras nacionales vascas**, M. de U., p. 32; referencia de Manuel de Irujo: "En el Congreso celebrado en Hendaia en 1901", "en la de Hondarrribia el año siguiente"... Alderdi, noviembre, 1954. 3: RIEV, 1, 99-100: "Eskual-Zaleen-Biltzarra" / 1906ko bil-aldia.

## IZEN ZAHARREN ILDOTIK



Endara Erreka Bidasoan sartzen Endarlatzan. (B.E.L.)

Izen zaharren ildotik historiaren eta hizkuntzaren argibediak, non zer zen jakiteko...

Ba al zenekien **Eizaleku** zeritzan etxe bat bazela arkoll aldean? 1787an Floridaibanla kondearen aginduz egin zen zentso hartan datorrenez "entre Santa Engracia y Arcoll" esaten bait da. Ikusten denez, ordurako galdua zuen Santa Engraziak bere izen jatorria: **Ntra. Sra. de Gracia**. Hala bai zen ermita hori XVI. mendean. Florentino Porturen **Fuenterrabia** deritzan monografia behartu baizik ez dugu (bere 343 eta 386. orrialdeetan). Baina XVII. mendean oraindik era jatorrez jarraitzen zuen. Ikus S. de Arlegui-ren lanean, Moret-ek latinetik gaztelera itzuli zuen hartan, 1638ko hesiaz idatzitako **Sitio de Fuenterrabia** libururaren 45. orrialdean: **Nuestra Señora de la Gracia**. Zer lastima izen jatorria hura gorde eza.

Endanea baserria, 1787ko zentsoak **Endaranea** zekarren eta 1857ko Nomenklaturaren **Endarena**. Sustraiak, Endara, argi dago. Baina, ez dakiguna zera da, noiz bait Endararik bizanleren bat etorri zen ala aintzina-goko eskualde zaharren batetan enarritunik datorren. Era hortako hipotesiak jarri ez zait gustatzen, baina aztergarria izateko. Aintzina-goko eskualde zabalgogotik baletor, Hendaia bera ahaztu ezinezkoa da, hemengo Endanearekin batean, ibaian gora Endarlasara arte eta handik. Aisakoarriaren gibeletik, Endara-erreak gorantz Endara etxe eta olatk ziren lekura arte. Mende honen haserara arte oso ezagunak ziren bertako ola-zaharrak eta deitura dakarren etxe zaharra bere armarriz.

Igaz, **El Diario Vasco** egunkariaren "Cartas al Director" saillean, noizbehinka ager-

zuen zaizkigun "jakitun" horietako batek, Endarlasaren etimologia eman zigun, bere eriztitz, zalantzarik gabe, "onar-laza" zuen esan nahia eta berri era hortara jartzea eskatzaren zuen. Baina, Endara, Ondar-etik datorrela uste izateak ez du zentzu askorik. Aintzintik, Endara izeneko etxe eta oleeetatik hartu zuten izen hori, **laza** edo **lasa** ordea, euskaraz erre-karen izen zaharra da, noiz bat Euskal Herri zuzen hala erabilia eta gaur egun Iruka-ekaldian oraindik erabiltzen dena. Lehena-go orotan ezaguna zenaren lekuko euskal deiturak eta toki-izenak non-nahi; **errika** latin jatorrikoa bait da.

Beraz, argi dagoena zera da, Endarlasa eta Endara-errika, biak gauza bera direla. Tartean denboraren gora-behera baizik ez dago, bota bestea baino zaharragoa. Hori bederi Endara toponimoaren zahartasun adierazgarri da. Gaur egun, Endara izena galtzeko zorian dago, baldin Irungo Udalak izen jator horren alde erabakirik hartzen ez badu behintzat. Toki hortan erakiti duten upresari San Antón deitzen diotelako. Hagonimoak gerotzik erantsiak izaten dira normalek.

Agiri zaharren arabera, Endara portu de "portu de Endara" 1365. urtean aipatzen da, Nafarroako errege Karlos II.ak gipuzkoar ordezkariak bakeak egin zituztenean (Archi-vo General de Navarra, Cámara de Comptos,

caj. 20, n.º 81, erreferentziak gordetzen da). Horrez gainera, Erdi-Aroan, **Endaralaz** izenez ezagutzen dira Endara-errekako oia zaharrak. Zalantzarik gabe, horiek ziren toki-izenaren formarik zaharrenak: Endara-las, gehi-a artikulua eta Endaralasa era jatorra irakur daiteke.

Aldiz, San Antón ermitaren berririk ez da agertzen 1567ra arte. Hala ere, urte hortarako ba omen zen J. Caro Baroja, "Monumentos religiosos de Lesaka", **Anuario de "Eusko-Folklore"**, 1932, XII, 52. orrialdean. Zeren, esan-beharrak dago Endara erre-kak bereizten dituela Irua eta Lesakaren arteko mugak eta ermita Lesakako San Martin parrokiari dagokiola.

Horregatik, Irungo Udalak, ongi egingo luke urak hartzeko erakiti zuten presari Endara izena itzultzea. Bestenik ezetan, Irunena haina Lesakarena denez, Gehienetan, berez, toponimoak hagonimoak baino zaharragoak izan ohi dira.

Badakigu izenak gordetze hortan beti ezin dela berdituzto jokatu, zeren Hondarribiko hilerriari, adibidez, Hilerria deituko genioke eta ez Domingotxonea. Gaur oraindik bada izen hortako etxea, baina etxe horren lurraldean egin zen 1885. urtean oraingo hilerria. Etxe izena, 1787rako bazen **Domingotxonea**.

Harago joanaz, irakurleak ba ote daki Kaputxinoen komentua egiteko han bertan **Arjeloz** zeritzan etxe bat bota zela 1663. urtean? Amute, Jaizubia aldetik zetorren ibai izena zen. Jordana de Ugarte izen-deiturakoa zen Arjeloz-en etxe jabea eta Miguel Aginaga bertako maizterea. F. Portuk ematen dizigui nahikoa berri arestian aipatutako monografiaren 399. orrialdean.

Esan dugunez, garai hartan Amute apezna zen auzo, etxe bat edo beste bazen ere 1596ko berriak estaintzen dizigui F. Portuk, monografia horren 186. orrialdean. Baina, lehenago, Amute, ibai izenez, 1522.ean jartzen digu E. Garibay mondragoar historiagileak bere **Compendio Historial**-aren 3 tomo-ko XXX. liburuaen X. kapituluan.

Etxe-izenek et leku-izenek etengabeago agirik estaintzen dizkigute zuten gordetzen badira. Lagungarri ditugu historia hizkuntzaren ikerketarako, eta horregatik dira kultura ondare.

Juan San Martin

## ARRANTZA

Eguraldi txarra izan dute ahotan azken egunotan gaur arrantzaleek, hula dela eta, jogan den Urtarrilean sei edo zortzi egunez besterik ez baitute arrantza egiteko izan.

Oraingoz egunak ez dira oso hotzak izan, baina haize indartsuek ez diete normaltasunez arraina hatzematara joaten uzten.

27an 3 itsasontzi atxilotu dituzte frantsesek, dirudinez, haien ur-eremutan bati zebiltzan arrantza. Ingura sare ztxixarroa hatzematzen zuten bitartean, Gipuzkoako bi itsasontzi eta Kantabriako beste bat eraman zituzten berekin.

**Aipamen berezia.** Hilabete honetako alean, duela egun gutxi, 88-1-20an hain zuzen, hil zitzaigun pertsona bat aipatu nahi nuke. Inaxio Alzari buruz ari naiz, gure herrian Inaxio Xalto goitizenaz ezagunago genuen horretaz.



Inaxio Alza "Xalto" 1987ko omenaldian.

Ez dut, hiltzen diren arrantzaleei buruz idazteko ohiturarik, baina salbuespenak salbuespen bit hitz eskaini nahi nizkioke Xalto zena.

Bazuen Inaxiok, arrantzale handia izateaz gain, bere inguruan bereizten zuten aparteko doanik nire ustez, sukaldaritza, alegia, Normahik dakienez arrantza gehiutsuenak izan ditugu eta ditugu sukaldari iaioak, baina Inaxioren trebetasuna nabarmenagoa izan delakoan nago. Norik ez du inoiz jan hark prestatutako marmitako platerkada edo arrol kaxuela ederrik? Hari arraina eta lagun-garriak eman besterik ez zegoen... gainera guztia berak egiten bait zuen. Biziki ahalgintu eta saiatzan zen eta nere ustez are garrantzitsuagoa dena, gozatu egiten zuten sukaldaritzan.

Harekin izandako hainbat solasalditan, soldaduskan zegoenean Marinako kargu goieneri prestatzen zizkien aparteko otorduak aipatzen zizkidin. Askok eta askok datatu dute gurne Inaxio Xaltoren sukaldaritza ona. Goian Bego.

### ANTXUA KANPAINA

Eta beste gai bati helduz, esan beharra dago, inguru sareko itsasontziak prestatzen hasiak direla antxua kanpainari aurre egiteko.

Milioio asko gastatu dute 87. bukaerari arrantzaleek itsasontziak gaurkotu eta motore, apareilu teknologiko eta gainontzekoei dagokienez egunean egoteko, guzti hori gerora begira.

**Otsailak 5.** Hondarribiko Nuevo Glorioso San Pedro itsasontzi atxilotu dute frantsesek, inguru sare ztxixarro bila zebiltzanean, Untziak Baioara jo behar izan du eta ilunabarerra era ez dute txeraterzik izan zegoen fidantza ordaindu eta gero.

**Kai-berria Bai, Ez, Noiz?** Gure arrantza-leentzat berebiziko garrantzia duen eta oraindiko iturbiderik ematen da auzo arazo du gure Kai berriaren hedapena. 88-2.44ko Alderdi Plenoan gaitzetsi egin zuten gainerako alderdi guztiek H.B.ren mozioa. Han, zera eskatzen zen: Ipar ditekoko muturretik hasi eta hegoalderaino beste ditekoko erailtzeko lanak beharhala hastea. Mozio hau ez zen onartua izan gehiengoak gaiari buruzko aztergai berria eskatzen bait zuen. Hirugarren aztergiaia burutzen denan eta txostena aldekoa den ala ez ikusi ahal izango denean, orduan erabakiko omen da.

Denok dakigunez gauza hauek mantso joan ohi dira, baina egia esan, aspaldian-ko gaia dugu hau, eta atzerapena luzeegia iduritzen zait, 1.985ean, ba omen zen Protuko lan horietarako aurrekonturik, baita 1.986an ere. 1.987an Eusko Jaurlaritzak ez zuen horretarako inongo aurrekonturik egin, Udaletxea eta Kofradia ez bait zetozen bat. Gauden urterako ere bada lan horretarako aurrekontu bat, baina daramagun martxan, baietz joan urtetan gertatutako errepikatu.

Gu ere lanak egin aurretik aztertu egin behar direlaokoa gauden, baina egundaino zegoenik ez du interes handirik azaldu, gaur egun hertsiki eskatzen den hori, Iparraldeko ditekik hasi eta Hegoalderaino lana hastea alegia, ontzat emana bait zuen Losada jaunak honek eginko bi atzerlanetan, eta hortaz, jadanik portuaren lehen zati hau egiteko baimena gure eskuetan izan genezakeela eta sekulan inori atsegin gertatzen ez zaizkion gatazkek ez genituzkeen behar izango.

Gutxienezko eskuzabaltasunez eta gai honek duen premiaz jabetuz batez ere, gaur egun dauden debastotasunak konpon daitezke, nere ustez. Badu aski arazo arrantzaleek itsasoan, lehorrean ere handiagorik izateko.

Andres Olaskoaga



## BEROTEGIAK

Neguan gaudenez —nahiz eta aurtengo honek, negua denik itxura gehiegirik ez izan— badirudi gure artean hainbeste zabalitzen ari den berotegietaz zenbait bereritasun aipatzea ez zaigula gaizki etorriko, batez ere, kontutan edukiz, gaur egungo bizi moduan estalpe hauek aurrerapen handia suposatzen dutela. Halare, badago jendea berotegietan gehigi sinisten ez duena, zeren eta bertatik ateratzen den produktoa edo uzta, granjetan egiten diren oillaskoen antzekoa izaten dela uste bait duelako, alegia, sustantzi edo zapore gutxi janaria dela berotegietatik ateratzen dena. Barazkiak izan ezik, loreak ere usain gutxiokoak direla, nahiz eta itxuraz politak izan. Baina, guzti horiek direla eta ez direla, ezin ukatuko dugu berotegiak eskeintzen diguten abantaila. Estalpe hauei esker, urteko aro guzti-tan daukagu barazkiak jateko aukera eta honek, ez du gutxi esan nahia...

### NUN ETA NOLAKO LEKUAN

Berotegi bat egiteko orduan ez daiteke hasi nonahi eta nolana-hi zeren eta landareak azkar hazitzeko zenbait puntu garrantzitsu eduki behar bait dira kontutan. Hasteko, esan behar da itxasertza barruko aldea baino hobea dela diote dituek, eguzki ordu gehiago eta elurra eta horma gutxiago egiten duelako, eta baita ere, egunetik gauerako temperatura aldatzea ez delako hain handia edo nabaria izaten. Bestalde, berotegia bizi den den etxetik hurbil xamar edukitzea komeni dela diote, zeren lan asko bait da maiz egin beharrekoa. Esatebaterako: airebirritzea, erregatzea, hezetasuna eta tenperatura, etab. erreparatzea.

### ELURRA ETA AIZEA ETSAIRIK GAIZTOENAK

Gehienok dakigu Hondarribiko paraje hauek ez direla oso elur tokiak, baina aizeak ordea, behin baino gehiagotan, egiten ditu behar eta bi. Oraindik ederki gogoratzen naiz, duela bizpahiru urte nola txikitu eta eramaten zituen hemengo berotegiak. Esaten dutenez, aize indartsuak datozen aldera begira egin behar omen dira eta begi bistan dago gure aldean hego-mendebaldera zuzenduak jarri beharko genituzkela.

### LURRA ETA HONEN DRENAJEA

Beste gauza bezala, lurra zer nolakoa den ikusteko handia dauka. Horrela, ezer landatzen hasi aurretik berotegiako lurra ondo ongarritu behar dira eta baita ere, urtero lurra horren analisia edo azterketa egin. Kontutan hartu beharreko beste puntu bat drenajea

## NEKAZARITZA

da. Lurrari ezer ematen hasi baino lehen, ia urak errez korritzen duen edo ez ziurtatu behar da. Hortarako, buztin lurra dagoen tokietan, berez drenaje txarra egoten da eta beharrezkoa izaten da tubo poroso berezi batzu jartzea, lur horri etekin egokia atera ahal izateko, bestela eta lurra iragazkaitza baldin bada, landareak ustelzerako arriskua dago.

### TENPERATURA ETA HEZETASUNA

Ikusten denez, gauza asko dira kontutan eduki beharrekoak eta, tenperatura eta hezetasuna ere bai. Landare bakoitza hazitzeko garaian eta sasoi ezberdinetan ez ditu tenperatura eta hezetasun berdinak behar eta, landare-batentzako ona dena, bestearentzat behar bada ez du balio. Horregatik, bi edo hiru barazki desberdin garai berean egiteko, hobe bi edo hiru negutegi edukitzea bait bakararra baino. Izan ere, barazki bakoitzak argia, beroa, hezetasuna eta barri dagokionean besteak ez bezelako neurriak behar bait ditu.

Hona hemen berotegietan gehien egiten diren zenbait barazki behar duten beroa eta hezetasuna:


Landarea	Temperaturarik onena emetzerakoan	Temperaturarik bujiena ongi hazitzeko	Girko hezetasuna
Letxua	15°-25°	6°	60-70
Leka edo baina	20°-25°	15°	70-80
Tomatea	25°	13°	50-60
Biperra	30°	18°-20°	55-70
Pepinoa	30°	18°	75-90

Amaitzeko eta aurtengoa negua, orain bitartean behintzat, oso arraroa izaten ari denez, nahiz eta bukatua denik gehiegirik fidatu ez, hona hemen sarri entzuten diren bi esaera. Bata negu sarreran edo elurra hasten denean esaten dena, eta bestea berriz, martxoko hilabetera irritxi eta udaberri usia somatzen denekoa:

¡Elur malur ez niok hire beldur, badiat etxean nahiko arto eta egur!

¡Martxoko aire gorri, goizero elur berri!

J.J. Bereau



## ERROTAKO GIRIXIAN

(... eta bukaera)

Ez zuen gauak ilargia ikusten lajatzten, baina bistan zegoen bazela zerbat argitsu eta ziztakor laino guztien atzean. Ilunaren isilik ere ez zekarren zelatari bilaba gordearen abisurik, baina nabarmen zegoen (usmatu ala susmatu?) norbait bizi zela gure mutilak zasta! esku beteetan atzaman nahian.

Hirurak jotzeko zeudenean hortxe, Fernando dok ere talai modukotik langar artean ikusi ez baina, plaxt-plaxt, arraun soinu ezti-etzia somatu zuen kala sarrerako lepoan.

—Heldu tutuk!

Txistuza jotzeko eta beste hamaika soinuz ere imitatzeko abildade aparta izaki, bat bazuen bere-bere: ezpainak luzatu eta zirrixtutik haizea kanpora egotzi beharrean barrukaldera zurrupatzetan, txoil txistu mehe baina zizkolatsua ateratzen zitzaion.

Txistu hori, atzera egiteko seinaleztat zeukan elkar emana. Beraz, Fernando dok bi halako txistualdi motz jo bezain pronto... ixoi! Ez zen haizearenik ere entzungo; ere gutxiago arraun hotsik.

Geroenean, bai. Atzera plax-plax hasia zen norbait langar artean, lehen baino ere eztiago ahalbait; baina zia eginetz, ez arraun plausitadatoxoak errotaruntz beharrean itsas zabalera faka bat ziren.

Ia erroti bertaraino itzuli zen Fernando eta, labarretik betti bidexidorra izaki, handik abiatu zen Fernando. Bottikari-ta adierazitako puntura heldu asmoz. Bazekien berak zuela arriskurik handiena bide haietan, dena pikutara bidaltzeko kaite pixar bat aski zuela... Ordea, haren begi-belberian arreta, zorrotza eta erna, esan gabe ere pentsa!

Errota atzeko mendi bizkarraren ur iskinan, itsasoak errexulla egiten duen puntuan, begira zuen Fernando dok bottia bi lagun gazte urduriakin.

—Zeer...?! —bestirik galdetzeko ere ez ez ziren artean gauza gaixoak.

—Okerren bat badiagu —Fernando dok, la-saia go bezala—, Hariak puskatuak, motel, eta Bottika etziok konforme.

Badaezpadan, kaidudu guztiak gutxioko. Gargero puxkak jasotzera honara heldukituk mutilak eta goazen bottia ustutzera aguro. Beste piper pota zakil hoiak honaraino, bederen, ez al dituk sartuko... bestela, emango ziet diburtakin buruan, matxapetakini kopetan eta... krokaz okotzetik itxetia urera botako!

Haundi eta txiki, sei pakete edo puxka ziren, bai, gutzira. Bat bazen fuerte pixua, gainerakoak hor nonbait.

Fernando dok txiketotik, eta beste biek toletatik edo branaka aldeko tostatik tiraka, bottia lehorreratzen lehenbizi eta gero, hiruren artean, laister egin zituzten hango patrifilioak.

Bottian etorriak Ttanton eta Bixente ziren. Bluxa urdinez, beuden txurikin, galtze-



Portomoko ko koartela

ta, eskalaproi eta kapeluearekin, legera jantziak biak.

Puxkak lehorreratze lanak egin ondorez ez zuten asko egon beharrik izanketu, aguro agertu bait zitzaizkien, banan-banan, metro dexteneren taritearekin, Bottika, Pako eta besteak. Sorbaldan zekartzaten kafe eta almendra paketiak, sei.

—Hemen gattuk denak okerrik gabe —Fernando dok, arrosel begiekin goizaldeko ilunak arzeitutu nahian — Benol Ziri ederra sartu behar zigue ezkutuko zomorro berde horieki, alajainkua!

—Den a beharko diagu gure alde, bai, alu hoiak egingaitzeko... —taldeko nornahik, berekiko.

Bottika hasia zen ordurako heurek ekarri paketiak gottiveagoko arroka zulo babes batean pilatu eta idorren estaltzen, Fernando dorengandiko aginduak aurrez ere balekitza bezala.

—Zuek, Ttanton eta Bixente, errotako kala girixira faki zazte berriro, deus jakin ez duenaren moduan. Aparejuak eta zerak ekarritzia, noski, ezta...?

—Hara hor —Bixenteak, bottera hurbilduta — Txukera, aboreñak, aparejuak... baitare dozena bat txipiroti. Tut komplet!

—Hori duk eta. Errotako hortan sartu eta karabineruak agertzen bakaizkizue, badakizia: txipiroitan ibilki zaretela, arrokeruak zaretela... errotako Tomax zaharra aixkidea duzuela eta ea itxian eto dagoen ikustera arimatu zaretela eta abar eta abar... Zerna-hi asmatu! Bittartian, guk beste alde horretatik ospal gure puxka bernokin. Bazter gutzietan ezin egongottuk, bilabak!, Jainkua bezala... Guk ekarriak, berri, hemen gelditu beharko ditte: karabineruak ateratzen zaizkizuela...?, bihar enpleatu zittuago nolabait; ezetz...?, ba hobe, itxerakuan honara sar zaitetz, jaso Bottiak utzitako lekutik eta barkura eramane. Lixto...!?

Eta hala, bakoitzak bere bidea hartu zuen: bik, bottez ur-lainoetan barna; seik, (arroka, sestraka eta belar) mendian gotti, ilupetan denak ere kapen, mugurik...

Sanandres egunak ez zuen alaiago argitu. Hezeak eta bustiak bezperakoak berberak ziren Guadalupeko ermitta atzeko kantina txuri ingurutan. Haizea akaso bareago eguerdian, baino Aiako Harriak itsasgezurak eta Baiona aldetik Pasait aldera, zerauk kapelu zuri zikina, borobil osoan zabal-zabala.

Hiru gizonezko ari ziren blaga itxuan kantina zoko batean, arrantxoaren esperotan eta zurrutean: Fernando sendoa, Bottika gorra eta Pako dotorea.

—...Hamarrak aldiari libratu omen zittuzte Ttanton eta Bixente akettoak, gorriak eta beltzak ikusarazi ta gero. Nork bere itxera jo omen dik gargero. Lo premia ederra izango ditte nere moduan...!

—Esan nuzien nik —Bottikak, baxoerdia kolpean klinkatuz —, hariak hautsiak, ez zela bart gauza onik, girixia girixianean ere.

—Jakinketu dudanez, hankak lehorean jarri bezain pronto, —Pako ari zen horrela, bera bait zen goiz-goizetik etxerik etxe, non zer jakingo, ibilia—, raust atara omen zittazkien hiru karabinero. Graziak txipiroti, agorina eta gainerakoak zittuela, ez bestela ez zittiken zer esan askorik izango denboralditxoan, kalabozoko lau paretai ezpada. Nola batak hala bestiak, deklarazio bera egiten behin eta berriro, baina deabru madarikatu haiek ez sinesten! Bottia bertan utzi arazi eta Portomokon euki omen zittuzte trapu zaharra gixan, zoko batera bottiak, pailaku haundirik gabe. Karittak bai gozatu tarteen...! Graziak, esku artean halere puxkari —edo atzaman ez, eta ezin deus egotzi...

Handik laister, hiru lagunotatik bi bizikleta banatan Guadalupeetik betti zihozan. Bottiak aurrez alde egin zuen bere eginetara.

Ez da sekula xamurra izanketu bizikleta berriek zaharagoaren itxura ematea, baina inondik ere gizon haiek bazuten sistema egokiren bat, ez berriaren didirik kenduak bait zizkieten koadroetan eta erriadotan eta lantetan.

—Kontuak kontu, ongi atara gattuk oringoane ta...

—San Andrés lagun izan diagu eguraldi zakur honekin...

—Orain bapo faki gattuk gainian...!

—Lehenago azpian ibiliak jakin dik hori ongien!

Orbela gorri bazterretan; murkoetan garro heldu abaiduk azken marroi eskazez; saiak aldzika berde-ilun; txori bakane bat ager-gordea denbora nolabait betez edo estraperlo bila huraxe ere, nonbait, ixilean urduri.

Jaizikibel haitz gibel bada itsasur hondorrenzat... eta bi bular lerdan barratik kaihazarrera arratserra heldu diren mariñelentzat... pasabide maldatsuz zen, arriku gordez betes, baten batzuzentzat garai batean.

Jesusmari Mendizabala

## HONDARRIBIKO AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

Egun hauetan Ikerketa Soziolinguistikoa, hau da, gure herriaren hizkuntz egoera nolakoa den eta gorora nolakoa izan behar luken agurtuko duen azterketa sakon bat egiten hasi berria dira. Lehengo Udalaren Euskara Azpibatzordeak proposatu zuena, oraingo Udaleko Euskara kontseiluak hartu du ikerketa hau burutzeko erabakia.

Azterketa honetan bereziki ikertuko diren alorrak honako hauek dira:

1. — Zenbat jendeak dakien Euskara Hondarrribian eta jende horrek zein neurritan ezagutzen, mintzatzen, irakurtzen eta idazten duen izkuntza.

2. — Zenbat erabiltzen den Euskara. Nork, noiz, nola eta zertaz hitzegiteko erabiltzen den.

3. — Zer nolako eritzi, jarrera eta balorapen egiten den herriko jendeak Euskararekiko. Nola ikusten den euskararen etorkizuna eta nolakoa izatea nahi lukun.

Informazio guzti hau, herri osoan ezetik, auzo bakoitzean ere egingo da. Era honetan, hiri osoko egoeraz gainera auzo bakoitzeko egoera zehazturik ezagutzeko eta Euskararen aldetik auzo bakoitzak zer nolako berezitasunak dituen agertzeko.

Hondarrribiak ba ditu berezitasun batzuk. Horien artean urteko garai ezberdinetan, bereziki uda eta neguan, gertatzen diren aldaketa nabarmenak, bai biztanleriaren, bai bizikeraren aldetik. Udaldian bitartean kopurua asko aldatzen da eta Euskararen erabi-

lera era bai. Aldaketa horiek ahal den zehaztasun handienarekin aztertu behar dira, udako jendearen etorrerak zer nolako eragina duen jakiteko. Hondarrribiaren gizarte bizitza zenbateraino aldatzen den eta, bereziki hizkuntzari dagokionez, zein neurritan den bereziki bizitza eraldatzen edo euskalduntzen duen. Alderantziz, ikusi beharko da, baita ere, zein neurritan bertako giro euskaldunak kanpotik etortzen diren euskaldunei euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen dien eta eraldaldun direnei euskaldun giro batean sartzeko aukera eskaintzen dien. Udalak eta herriko jendeak zer neurri har ditzakete hondartzan, herriko alor guzietan euskararen erabilpena ziurtatzeko.

Orain arte aipatutakoaz gainera, Azterketa Soziolinguistikoko batek, suposatzen du, baita ere, beste jende multzo batzuen azterketa zehatza egitea. Hala nola:

a) Alde batetik: lanbide ezberdinetako taldeak, Arrantzaleak, Nekazariek eta Gizarte Zerbitzutaokak.

b) Beste aldetik: adin ezberdinetako taldeak, haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak.

Eta jakina, azterketa guzti honek gaur egungo egoera zertan den ezagutzeko balio behar baldin badu, ez du horretan bakarrik gelditu behar, egoera hori hobea gatzeko zer egin behar den jakiteko baizik. Izan ere, egoera baten diagnostikoa egiten denean, zein erremedio dagokion erabaki eta erremedio hori berehala jarri ahal izateko izan be-

har du. Eta, noski, horixe izango da lan honen azken zatia: euskararen bizia zirutzatzeko zein neurri hartu beharko liratekeen azaltzea.

Hau da ba, hitz gutxitan, zer eta zertarako izango den Ikerketa Soziolinguistikoa hau.

Lan honen lehen zatia "Euskararen egoera gaur egun zertan den" aztertzea denez, momentu honetan, 1981 eta 1986ko Erroldean euskarari buruz agertzen den informazioa jaso da eta asterketa konparatua eta auzoz auzo, mapa linguistikoko baten modura, egiten ari dira. Honela jakingo da herritarren euskararen ezagupen maila nolakoa den, seaxoaz, adinez, jatorriaz, profesioz, ikasketaz, e.a., konparatuz.

Honekin batera, egun gutxi barru asiko dira euskararen erabilpenaren edo presentzia aztertzen:

1. — Euskara idatziaren presentzia: establizimendu eta lekuen izenetan, letreroetan, e.a.

2. — Euskara mintzatuaren presentzia: Kaleetan, laneko munduan, eskoletan, elizeetan, denda eta tabernetan, baserri eta itsasuntzietan, kultur eta kirol ekintzetan, e.a.

Urrengo "HONDARRIBIA" aldizkari honetan, hemendik aurrera sortu eta egiten diren lanazti, ikerlan, emaitz eta akatsen araber, berri gehiegi ematera saiatuko naitzaizue.

Fermin Olascoaga

## EZKONTZAK

### URTARRILA

- 5: Alejandro Elduaien Uranga, Hondarrribian jaioa eta M<sup>a</sup> Begoña Fernandez Enparan, Iruñen jaioa.  
9: Jose Ignacio Lekuona Emazabel, Hondarrribian jaioa eta Itziar Genua Goikoetxea, Iruñen jaioa.  
9: Jose Luis Iruñita Silos, Salamanca jaioa eta Miren Biotza Rubio Monge, Iruñen jaioa.  
16: Tomas Igos Santesteban, Hondarrribian jaioa eta M<sup>a</sup> Begoña Alonso Arburu, Hondarrribian jaioa.

### OTSAILA

- 6: Carlos Dean Sola, Iruñen jaioa eta Ana Osés Portu, Hondarrribian jaioa.

## JAIOTZAK

### URTARRILA

- 9: SARAY Castro Muruaga.  
12: ASIER Benitez Rivero.  
15: MAITANE Rodrigo Etxaide.  
16: MAIDER Agirre Del Rio.  
17: OIHANA Barrigon Varela

- Gurasoak: Dario eta M<sup>a</sup> Antonia  
» Ignacio eta Inmaculada.  
» Jesús eta Simona  
» Hermenegildo eta Miren Itxaso  
» Tomasa

### OTSAILA

- 1: MIKEL Velez Prieto  
1: OLATZ Eizagirre Olaskoaga  
7: CRISTINA Agirre Bustamante  
12: BENAT Oronoz Gorrotxategi

- » Francisco eta Teofila  
» Antonio eta Itziar  
» Juan M<sup>a</sup> eta M<sup>a</sup> Amparo  
» Domingo eta Amaia

## DEMOGRAFIA

## HERIOTZAK

### URTARRILA

- 21: Ignacio Alza, Bernat Etxepare Kalea.  
25: Salvadora Agirretxe Laborda, Mendelu Auzoa.  
25: Antonio Belzunze, Mendelu Auzoa.  
29: Rufino Miranda Balerdi, Peña-enea Baserria.  
30: Joaquin Agirre Iridoi, Kosta Auzoa, Meltxorrenean.  
31: Domingo Santin.

### OTSAILA

- 17: Gregorio Lanches Montero, Amute Auzoa.  
17: Miguel Llorens Martinez, San Pedro Kalea.

## ARRANTZALEEN MANIFESTAZIOA KAIA EGITEKO ESKATZEN

Otsailaren 4ean, Kai Berria zela eta, egin zen Pleanoan HBren moziolari zinegotzi gehienek ezekoa eman ondoren, arrantzaleak kanpora atera eta hurrengo goizean asanblada egitea erabaki zuten. Horrela, bada, biharamunean eguerdi aldean kofradian bildurik, herriko alkatea eta kontrato botua eman zuten beste zinegotzi guztiak "personas no gratas" deklaratzera eta beraien dimisioa eskatzera erabaki zuten. Bestetik, idazki bat Udaletxera bidaltzea beren haserrean agertzuz HB ez gainerako partiduek bezperako Pleanoan Kofradiako Aba Nagusiaren eskabideari uko egin ziotelako. Azkenean, arrantsaldean manifestazio bat egitea erabaki zuten. Manifestazioa Bentatik abiatu zen seieta eta 1.500 bat lagun kalez kale isilik ibili ondoan Alondegian bukatu zen, asanbladaren agiria irakurria.

## GAZTEEN KULTUR ERAGILEA

Udalak Lourdes Cabezón hartu du kultur-eragile gisa gazteeen lan egiteko. Bere ardurapean geldituko da Saindua ko etxea antolatzea.

Era berean udalak monitorea soziokultural bat ere hartu du okupazio lantegian jarduteko, eta obra-enkargatu bat INEM-en eta Diputazioaren laguntza egiten ari diren lanez arduradakin.

## LEANDRO JAUREGI LURPERATZAILA, JUBILATU BERRIA

Leandro Jauregi enterradorea oraintxe jubilatu da eta Udalak dei egin du langile berria kontratatzeko. Otsailaren 29an bukatu da eskabideak aurkezteko epea. Geure alde-tik jubilazio lasaia eta luzea opa diogu Leandrori.

## BUTROEKO IBILBIDEAN ITSASOAK KALTEAK ERAGIN

Hilaren erdialdean gertatu ziren denborale gogorrek kalte handiak egin dituzte Butro pasealekuan. Olatuek paretak puskatu dute zulo handi bat eginez. Pasealekua hesi bidez itxi behar izan da parte horretan, bestela arrisku handia zegoen eta. Joan den neguan ere 1.200 metroko luzeran izan ziren kalteak, Arraunlari parean hasi eta espigoi-raino. Udalak Ministerioarekin hitz egin zuten eta konponketa lanak egin ziren milioi asko gastatuta. Oraingoan ere MOPUK berehala ekingo diola konponetzeari agindu dio Udalari. Laster adjudikatuko dira lanak eta lau hilabete barru konponduta egongo omen da berritua.



## TXARDIÑA LURPERATZEN

Hilaren 16an, asteartez noski, bukatu ziren aurreko ostiralean hasitako ihauteriak, txardiñaren lurperatzean parte hartu zuten taldea Amutekiti abiatu zen arratsaldeko Beñan, Santa Engrazia, Kale Nagusia eta Arma Plaza igarotzean Portura jaitzi zirean eta irra bat egin ondoren San Pedro Kalean erre zuten txardiña.

Aurreko igandean ihauteri defesilea da lehiaketa izan ziren Udalak zoziedadeekin batean antolatuta. Karrozetan, 45.000 pezetako lehen saria Itsas Etekoak irabazi zuen kantinera karroza batekin. Bigarrena Klink-ekoak irabazi zuen Far-West-eko saloon batekin. Amutekoa eta Txanpakoa hirugarren gelditu ziren biak, batean, dilijentzia eta indio karrozekin.

Konpartsetan Klink-eko Charleston-ak irabazi zuen 30.000 pezetako lehenengo saria. Ondoren Txanpa eta Alkaindarrak gelditu ziren, 20.000 eta 10.000 pezetako sariak jasota.

Mozorroetan, taldea, Amutek lortu zuten lehen saria ondokit arlekinak eta epoxiak zituelarik. Sariak, 15.000, 12.000 eta 10.000 pezetakoak ziren.

Mozorroetan, bakarkako sariak, Xanti Larzabalek, Tomas Galarzak eta Tomas Olasoagak irabazi zituzten aipatu ditugun orden berean, 8.000, 6.000 eta 4.000 pezetako sariak lortuz.

Epai-mahaiko, Jose Luis Noain, Jose Manuel Balerdi eta Josu Urtizbera izan ziren.

## PUNTALEAN ETXEBITZTA SOZIALAK ERAIKITZEKO ASMOA

Udalak, aho batez, lur publikoa lortzeko lehen pausokoa onartu ditu otsaileko Pleano Berezi batean. Horretarako Puntalean daoguen 24. poligonoko B sailari dagokion Plan Orokorra aldatu beharko da, Plan Partzial bat idatzi eta espropiazioak egin. Leku hori Herri Bertan kooperatibaren ondoan dago eta 100 edo 120 etxebizitza egingo dira. Udalak harremanak izango ditu Eusko Jaurilantzarekin zein eraz egin etxeak erabakitzeko: babes ofizialekin, publikoarekin edo tartekoko zerbait.

## JUAN PABLO LANDA EEKO ZINEGOTZI BERRIA

Aurreko zenbakian EEk bere zinegotzi aldatu zituela esaten genuen, hala ere ez zen horrela gertatu, EEk hutsunerik gerta ez zedin biak batean ez aitzakia erabaki bait zuten. Horrela, bada, Bittor Aldaberen ordaz Juan Pablo Landa sartu zen zinegotzi ordezlarian 15ean horretarako bakarrik bildu zen Pleno Berezian.

## UDALETXKO LANETAN HORMA BAT ERORI DA

Otsailaren 18an horma bat erori zen Udaletxeko obran, arratsaldeko seieta gutxi gora-behera. Udaltzaingoaen bulegoaren gainean zegoen horma erdia erori zen eta Pleno arretoko atea hantxe geratu zen zintzilik. Zononek handiagora izan zen sustoa kaltea baino eta inork ez zuen minik hartu. Berrin jakin bezain laster bertan agertu zen Alkatea gauzak antolatzera. Badaezpada ere, aldameneko etxean bizi diren familiek beren etxebizitzak utzi zituzten. Gauzak lasaia igusita, ordea, ez zegoela arriskurik adierazi zitzaizkien. Hala ere baten batek nahiago izan zuen gaua etxetik kanpo igarotzea. Dirudienez azpiko lurra-ren bustitasunak eta ondoko lehertasunak kolokan utzi zuten hormaren oinarria, ondorioz horma okertu eta azkenean lur jo du. Bestela, Udaletxeko obrak aurrera doaz eta momentu honetan erabat hustua du barrena, zutik, atzeko eta aurreko hormak bakarrik dituelarik.

## MARLAXKA XAKE-JOKOAN TXAPELDTUN

Marlaxkako ekipoa laugarren urtez atera da txapelidun Euskal herriko Xake-joko Ligan. Atzetik, puntu erdiko diferentziak bakarrik, Bilboko Peña Ardid gelditu da. Liga honetan Hego aldeko lau probintziako ekipoen hartzen dute parte eta irabazleek Espainiako txapelketan jokatzeko aukera dute.



Butro Pasealekuan itsasoak egindako zuloa.